

GUaixe.eus



**Binakakoan
sakandarrak
aurrez-aurrez**



Kirolak >> 12

**Burundakinto ospakizunek hartu
dute, Bakaikutik Ziordira adin
guztietako kintadak elkartuko dira**



Kintoak >> 14



Euskara Bai, baina ez

>> 8-9

Gorenak Nafarroako Hondakin Plana baliogabetu du

Olaztiko porlandegian ez erraustea eta plan berria egitea eskatu dute Mank-ek eta Sustrai Erakuntzak

>> 5

Lau sakandar ariko dira Nafarroako Bertsolari txapelketan

Bi saio izanen dira Sakanan: etzi 17:30ean, Irurtzunen, eta hilaren 22an Lakuntzako kultur etxean

>> 15

Baso aprobe- txamenduen salmenta errentagarriak egin dituzte toki erakundeek

Espero baino diru gehiago jaso dute

>> 6

ALTSASUKO KORAZONISTAK

HAUR HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

BIGARREN HEZKUNTZA

H.H. eta L.H.ko izen-emateak
otsailaren 9tik 13ra

Tlf: 948562035

Jardunaldi jarraitua eta eskolaz kanpoko ekintzak. Murgiltze osoa euskaraz eta ingeleraz.



ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Eider Muñoa Goikoetxea

Zorionak printzesa! Familiako neskato pixpiriñari 4 milioi muxu Ibon Beñat aita ama amona osabak eta ize-baren partetik.



June ZORIONAK

JUNE! Iritsi da eguna... 7 urte! Oso ongi pasa lagunekin eta muxu erraldoi bat familia guztiaren partez.



Irati Andueza ZORIONAK

etxeko printzesa haundiari!!! Zure 9. urtebetetzean oso ondo pasa. Muxu haundi bat etxekoan partez!!!

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4€**

Bikoitza: **8€**

Bazkideek

3,50€

Bazkideek

7€

otsailak

6-12

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Aberri txarrak+Altxatu+DJ Bull. Otsailaren 6an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Inauteri kontzertua (marrazki bizidunetako musika). Otsailaren 11n, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Musika eskola.**

Pailazoak

Porrotx. Otsailaren 11n, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko gaztetxean.

Bideo emanaldiak

Hassanna libre. Gdeim Izik bideoa. Otsailaren 12an, ostegunean, 19:30ean Etxarri Aranazko Leku Ona Tabernan. Brigadistekin solasaldia. **Askapena.**

Mendi irteerak

Auza. Otsailaren 1ean, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Bizikleta irteerak

Eulateko gaina. Otsailaren 8an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 53 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Ibilbidea. Otsailaren 8ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Angel Antonio Agirre.**

Altsasuko inauteriak. Otsailaren 9tik 22ra arte 18:30etik 21:00etara eta

domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Zinema

Rastros de sandalo. Otsailaren 6an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Big hero 6. Otsailaren 8an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Birdman. Otsailaren 15ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Hitzaldiak

Nafarroak ahal du. Otsailaren 6an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Hizlariak:** Sara Brun eta Alex Elso, Nafarroako Podemos-Ahal Duguko Hiritar Kontseilurako hautagaiak.

Gazteondako lan eskubideen gida. Aurkezpena. Otsailaren 6an, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo

Larrazpi elkartearen. **Ernai eta LAB.**

Hobetu zure bizitza eta izan zoriontsua. Otsailaren 7an, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlaria:** Lara Ahimsa Ribera, psikoterapeuta transpertsionala.

Bertsolaritza

Soto, Untxalo, Garro, Zelaieta, Elozegi eta Plaza. Otsailaren 8an, igandean, 17:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Nafarroako txapelketako final-laurdenak.**

Bestelakoak

Eroskiren bermustutzea. Otsailaren 6an, ostiralean, 11:30ean Altsasuko Intxaurren kalean.

Turismo arloko eragileen topaketa. Otsailaren 9an, astelehenean, 17:00etan, Altsasuko Basoko Mari artisautza gunean.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Otsailaren 6an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Otsailaren 6an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Otsailaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Astoaren laguntza, ezinbestekoa



Altsasuko kintoek elurrari eta hotzari egin behar izan zioten aurre atzo, Santa Ageda egun handian. Eskean aritu ziren, opilak bildu eta herriko denda eta fabriketan sal-

tzen. Astoaren zakuetan pilatu zuten jasotako diru guztia eta gaur egingo dute zenbaketa. Esker onekoak izan behar dugunez... tori muxua!

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Urdiaingo kintoak, Edurnerekin Bat eta
Libre dinamikak...

Esataria: *Alfredo*



Sakanako Herri - Eskolak

Iturri zaharreko ur berria

Altsasuko Zelandi IP



Zelandi 18
31800 Altsasu

Tfnoa.: 948 564 839 Faxa: 948 564 011
cpalsasu@educacion.navarra.es
zelandieskola.educacion.navarra.es

Arbizuko Herri-Eskola



Kale Nagusia 1
31839 Arbizu

Tfnoa.: 948 460 763
cparbizu@educacion.navarra.es
www.arbizukoherrieskola.blogspot.com.es

Etzarri Aranazko San Donato Herri-Eskola



Utzubar txiki z/g
31820 Etzarri Aranatz

Tfnoa.: 948 567 003
cpetxarr@educacion.navarra.es
www.etzarrikoeskola.com

Irurtzango Atakondoa IP



Ardubil z/g
31860 Irurtzun

Tfnoa.: 948 500 228
cpirurtz@educacion.navarra.es
centros.educacion.navarra.es/atakondoa

Iturmendiko Arrano Beltza Herri-Eskola



Elizazpi 1
31810 Iturmendi

Tfnoa. - Faxa: 948 563 414
cpiturme@educacion.navarra.es

Lakuntzako Herri-Eskola



Abarrategi z/g
31830 Lakuntza

Tfnoa.: 948 576 020
cplakunt@educacion.navarra.es
lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/

Olaztiko Herri-Eskola



Nagusia 16
31809 Olazti

Tfnoa.: 948 563 307
cpolazag@educacion.navarra.es
sites.google.com/a/educacion.navarra.es/olaztiko-eskola/

Uharte Arakilgo San Migel Herri-Eskola



San Juan Olaza z/g
31840 Uharte Arakil

Tfnoa.: 948 567 100
cpuuharte@educacion.navarra.es
sanmiguelkastetxea.blogspot.com.es/

Urdiango Herri-Eskola



Elizazpi 4
31810 Urdiain

Tfnoa. / Faxa: 948 468 345
cpurdiai@educacion.navarra.es

Aurrematrikula epea: otsailaren 9tik 13ra

www.educacion.navarra.es · sakanakoherrieskolak@gmail.com



Aingeru Mikeo

astekoa

Estetikaren **zigorra**

Kultura ezberdinen arteko topikoen harira, Eguberrietan Marokora bidaia egin nuen, familia giroan. Nagusiki hiri inperialak izan genituen helburu: Chefchaouen, Fes, Marrakech, Al-Jadida eta Asilah. Horietan denetan, gune turistiko eta herrikoietan ibili ginen. Ikusi genuen astoa garraibide oinarritzkoa dela askorentzat; abiadura handiko

trena izanen dute laster gutxi batzuentzat. Erdi Aroa eta Postmodernitate. Non-nahi saltzaile nekaezinak, kaleetako trafikozorua eta txilaben kolore bizia. Zedro egur, espezia eta ogiaren lurrinen usain sarkorra. Mezkitako muezinaren otoitzerako dei sendoa 'Allhu Akbaru' eta kontu-kontalarien solasozenak. Kuskus, tajina eta te-mentaren das-

tamen gozoa. Kaleko giro bizia eta neguko eguraldi epela, argitasuna. Zapiak, burkak eta estali gabeko buruak armonian. Eta, batez ere, jende alaia eta abegitsua aurkitu genuen; ez keinu edo begirada txar bat bera ere. Esperientzia ederra!

Fatima Mersini idazlea, intelektuala, eta feminista marokarra da. Behin, mende baldeko herrial-

de bateko arropa dendarajoa eta kotoizko gona bat eskatu zuen, eta saltzaileak, hoztasunez, bere aldekak ez zirela 38 neurrian sartuko, handiegia zela. Handiegia norekin alderatuta? Gizena, nazkagarria eta ez deusa sentiarazi omen zuen saltzaile argal eta mengelak. Fatima Mersinik dio, mende baldean, estetikan oinarritutako bortizkeria sinboliko-

ak emakumeari kalte psikologikoa eta gutxiespena eragiten diola; Iran, Afganistan eta Saudi Arabiar bezalako muturreko gobernuek behartzen duten zapiaren erabilerak baino are handiagoa.

Aingeru Mikeo
aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Hipoteken Plataformari, esker onez

Gure istorioa pisu baterostea erabaki genuenean hasi zen. Garai hartan hipotekaren prezioa zertxobait altua bazen ere, arrazoizkoa izaten jarraitzen zuen gure orduko egoeran. Biok, nire emazteak eta nik, lana geneukan eta dirua ez zen arazo bat guretzat. Denbora batez, dena nahiko ongi joaten zen, hala ere, hainbeste entzundako krisiak gure bizimoduaren kolpatu zuen.

Lana urrituz joan zen, galdu arte. Horrek ohiko gastuak ezin eramatera ekarri zigun. Sinplea zen. Hilabete amaierara iristea ez genuen lortzen eta gure egoera desesperagarri bilakatu zen. Jakina, posible zen guztietan murrizten saiatzen ginen, baina, ez zen nahikoa izan.

Hipotekaren prezioa arazo bat izaten hasi zen, dagoeneko ez zen arrazoizkoa. Beraz, pisua bankua-

ri itzultzeko aukera aztertzea erabaki genuen. Gure intentzioa jakinarazi genien banketxekoei eta haiek irmoki ukatu ziguten aukera, zenbait arrazoibide emanez. Hainbat modutan saiatu ginen baina, soilik, ezezkoak jasotzen genituen.

Orduan izan zen, halabeharrez, hipotekak eragindako pertsonendako laguntza plataformen berri izan genuenean. Berriozarko

egoitzarekin harremanetan jarri ginen eta haiek Sakanakoak gine-lakonturatzean gure kasua Altsasuko egoitzara pasatzea erabaki zuten.

Gure arazoaren berri eman genien eta, haiek, azkar eta eraginkor, guztiaz arduratu ziren. Denbora guzti horretan gure ondoan borrokatzen egon ziren, aurrera jarraitzeko beharrezkoa den laguntza hori ematen, gure

etorkizuna hobe izateko asmoz eta genituen arazo haiek desagerarazteko.

Ez zen erraza izan gure helburua lortzea, baina, hainbeste trabaren ondoren lortu egin genuen eta haiek puzzlearen pieza gakoa izan ziren. Haiendako gure eskerrik onena, asko zor diogu eta.

Hipotekak Kaltetutakoen Plataformari

hara zer dien

Elkar ekintza prebentzio programetan

Urte hasieran gaude eta prebentzio programetako hauek planifikazio data izaten dira. Egoera hau kontuan izanda, Sakanako hiru Gizarte zerbitzuetako prebentzio programek komunean egiten ditugun ekintzen laburpen bat egiteko aprobetxatu dugu.

Lehenengoa eta guztientzat oso ezaguna dena JAIBUSA da. Aurtent, martxan jarri zenetik 15 urte betetzen dira. Jaibusak, kontsumoen ondoren eman daitezkeen trafikotrupen murrizketa eta biztanleria kontsumo eta gidatzearen inguruan sentsibilizatzea ditu helburu nagusiak. Jakina da asteburuetan gazteak eta hain

gazteak ez direnak ere alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzen dituztela, kontsumo hauek jaietan areagotzen direlarik. Eta honekin lotuta, gure zonaldean herrietako jaietara joateko dagoen ohiturak, jaibusa martxan jarzera eraman gintuen.

Aipatu jaibusa pertsona guztientzat dago zuzendua, eta ez bakarrik gazteentzat, batzuk uste duten bezala.

Elkarlanean egiten dugun beste gauza bat udako prebentzio kanpainak izaten dira. Hauetan Sakanako prebentzio programek gain, Leitzakoak ere parte hartzen du. Kanpaina hauen helbu-

rua sentsibilizazioa izaten da; adin konkretu bati, egoera desberdinen eta kontsumo desberdinen arrisku murrizketen inguruko informazio kontrastatua helarazten diegu. Kanpaina bakoitzaren edukia, teknikariok antzeman ditugun beharren arabera aldatzen da: behar hauek gurasoek, irakasleek, gazteek, aisialdiko teknikariak... ematen diguten informaziotik jasotzen dugu. Beti uda hasieran banatzen dugu, denbora libre asko izanik, kontsumo gehiago edukitzeko aukera dagoelako. Formatua ere urte batetik bestera aldatu egiten da, beti ere, erabilgarria den

zerbait bilatuz (porta CDak, zapa-tilleroak, boligrafoak, agenda-txoak...), bertan agertzen den informazioa behin irakurrita ez botatzeko. Kanpaina batzuetarako gazteen kolaborazioa ere eskatu izan dugu.

Azkenekoa Gozamenez programa da. Bertan prebentzio teknikariek gain, Altsasuko gazte teknikaria, Etxarriko emakumearen arreta zentroko hezitzailea eta Etxarriko kultur teknikariak parte hartzen dute. Gozamenez gazteria eta sexualitateari buruzko programa bat da, non sexualitatea era positibo eta plural bate-tik lantzen den. Urtero programa-

tzen diren ekintza batzuk daude: Ur festak, antzerkiak, zineforumak, DBHko ikasleekin unitate didaktikoak... eta urtero ere gauza berriak sartzen dira, gazteekin tailerrak, e.a.

Ekintza hauetaz gain prebentzio programa bakoitzak berezitasun propioak ditu, lan egiten duen zonaldearen eta gizarte zerbitzuaren errealitatearen arabera. Askotan ekintza berdinak izanik ere, modu, momentu eta pertsona ezberdinentzat antolatutak izaten dira, adibidez gurasoentzako tailerrak, guraso eskolak, ikas-tetxeekin lana...

Prebentzio Programak

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILA: Garazi Barandalla
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRATZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Sailburuordea

IA 3.000 BISITA: Ihabarren hasi eta Irurtzen despiditzen da euskararen erabilerara sustatzeko Arakilen eta Irurtzen abenduan grabatutako lip-duba. Herriar

eta talde anitzek parte hartu zuten eta YouTubean ikusgai dago: https://youtube.com/watch?v=8Bta_BMoLI

sakanerria >>

SAKANA

Gorenak Mank-i arrazoia eman dio

Baliogabe utzi du Nafarroako Hiri Hondakinen 2010-2020 Plan Integrala

Espainiako Auzitegi Gorenak atzera bota du Nafarroako Gobernuak aurkeztutako helegitea eta, beraz, baliogabe utzi du Nafarroako Hiri Hondakinen 2010-2020 Plan Integratua. Sakanako Mankomunitateak eta Sustrai Erakuntza fundazioak eraman zuten plana auzitara.

Epaileek Nafarroako Gobernuari adierazi diote planean errauskailurako kokapenak zehaztu behar zirela baita kokapen horietarako arrazoia eman ere. Datu horiek plana onartu ondoren go dokumentu batean jasotzeak legeak halako tramitazioetarako agintzen duen herritarren parte hartzea eta bestelako bermeak ukatzen dituela dio epaiak. Nafarroako Auzitegi Gorenak dagoeneko 2013ko lastailaren 10eko epaian arrazoia emanen zien Mank-i eta fundazioari. Epai hartan gobernuak Ingurumen Eragin Adierazpenaren tramitazio epeetan legezko epeak gainditu zituela jasozen.

Erreakzioak

Mank-eko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak esan duenez, “Nafarroako Gobernuak plana, hau da, errauskailua, mantentzeko tenkorkeria agerian utzi du”. Gaineratuz: “UPNk eta PSNk errausketa tratamendugisa baztertzea lortu dugu, gaikako biltetaren eta organikoaren alde apalki apustu egiten hasiz”. Gogora ekarri du atez ateko sistemarekin ibarreko zortzi herritan %80ko birziklatze tasa lortu dela eta halakorik ez dela lortu beste sistemekin.

Olatzagutiko porlandegian hondakinak erretzearen kontrako jarrera berretsi du Mank-eko buruak. “Ingurumen zuzenbideak herritarrei errauskailu baten aurrean eskaintzen dien bermerik ez du porlandegiak; baimentze prozedurak ez du hainbeste berme eskaintzen eta batean edo bestean hondakinak erretzean eskatzen diren baldintza teknikoak eta ondorengo kontrolak ez dira berdinak”. Aurreko epaia jakin zenean esandakoa berretsi du Karasatorrek: Nafarroako



Erdian Aitor Karasatorre eta Martin Zelaia, azalpenak ematen.

Gobernuak porlandegiko txosten administratiboan ez luke urrats bat bera ere eman beharko, “plana baliogabetua zegoelako”. Ezagutu berri den epaian halako azpiegituren kokapena ekimen pribatuaren esku ezin dela utzi nabarmendu du Karasatorrek eta Sustrai Erakuntzak emandako aholkularitza eskertu du.

Sustrai Erakuntzako kide Martin Zelaia Nafarroako Gobernuari “azken urteetan, hondaki-

nen kudeaketa guztian egiturazko planifikazio falta” leporatu dio. Epaitegiek onartutako plana aurreko legegintzaldi akaberan “presaka” onartu zela eta aurrekontuaren %90 errauskailurako zela gogorarazi du. 2012ko udaberrian Roberto Jimenezek hondakinei errauskailurako atea itxi eta porlandegikoa zabaldu ziela esanez segitu du Zelaia. “Aldaketa horrek bakarrik plana bertan bera gelditzea eskatzen zuen”.

Plan berriaz

Nafarroako Gobernuak jakinarazi du “duela hilabete batzuk plana berraztertzeke lana hasi zuela, plan berri bat onartzeko”. Prozedura lastailaren 17an abiarazi zuen eta 18 erakundek eta pertsonak egin dituzte ekarpenak. Plan berrian errefusaren tratamendua eta Europako araudi berriak kontuak hartuko direla jakinarazi du foru administrazioak. Baita aurreko planean materia organikoa jasotzeko gaik jasotzeko edota prebentzioan eta birziklatzean jasotako “helburu handiak” ere. Gobernuak aurreratu du planean tratamendurako ez dela errauskailurik aurreikusiko. Porlandegian hondakinak erregaigisa erabiltzeaz, ordea, ez du ezer esan. Plan berria onartu bitartean estatuko araudia dago indarrean (22/2011 Legea, hondakin eta kutsatutako zoruei dagokiena).

Baliogabetutako plana berraztertutako beharrenean plan berri bat egitea eskatu du. Gobernuak herria ardatz duen kudeatzeko beste eredu baten alde azaldu da.

Ikastola, dena bat dator



txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com
948 37 30 23
ALTSASU



ikastola@inigoaritz.com
948 56 29 51
ALTSASU



etxarri@ikastola.net
948 46 02 86 - ETXARRI ARANATZ
948 46 10 77 - ARBIZU

>> Arakil

Hirigintza plana desblokeatuta

Udalak arakildarrekin eta kontzejuen parte hartzearekin berritu nahi du plana

Nafarroako Gobernuak Arakil hirigintza planean Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa jasoa egon behar zuela zioen eta Arakilgo Udalak horri uko egin zion. Zazpi bat urte eman dituzte horrela, hirigintza plana berritu gabe. Garagarrilean, foru administrazioak jarrera aldatu zuen eta hirigintza planaren tramitazioa abiarazi zuen. Hirigintza plana egin aurretik Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Eredua zehaztu behar da eta hori onartu zen joan den urtean.

Zazpi urteren buruan aurreikuspenak aldatu egin dira. Orduan 600 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuen planak. Oraingoaren zirriborroak 300 jasotzen ditu. Hasierako dokumentu hori kontzejuek jaso dute,



Arakilgo ikuspegia Beriaindik.

aztertu eta proposamenak egiteko. Ondoren arakildarrei ezagu-

taraziko zaie planaren zirriborroa.

Lakuntza hirigintza plan berri baterantz

Joan den urtean martxan jarri zen Lakuntzako hirigintza plana egiteko prozesua. 1990eko arau subsidiarioak daude indarrean. 25

urtetan herria eta hirigintza beharrak aldatu dira eta araudi berri baten premia sumatu zuten udalean. Plana egin aurreko Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Eredua zehaztu zen joan den urtean Lakuntzan.

SAKANA

Elurra baino, euria



Ibaiko ura Arruazuraino iritsi zen

Ostiralean Etxarri Aranazko meteorologia estazioan metro karratuko 95.6 litro zen batu ziren. Botatako ur guztia lurra ezin xurgatu eta larre eta soroak putzu bihurtu ziren. Arakil ibaia eta hainbat erreka gainezka egin zuten. Hura zenbait herrietara iritsi zen. Bestalde, zenbait abeltzainek urak estalitako larretan zituzten buruak askatzera joan behar izan zuten. Ibai kontrako baratzeetako etxolak kaltetu eta haietako zenbaitetan zeuden abereak hil zituen uholdeak.

>> Uharte Arakil

Uharte Arakilen kintadak ospatuko dira bihar

Uharte Arakilgo kintoek hurrengo astean ospatuko dute euren festa, ostegunean hasita. Hala ere, aurten, lehen-dabiziko aldiz, Uharte Arakilgo gainontzeko kintadek kintoen bazkari-afariak egun batean ospatzea adostu dute, eta ospakizuna larunbatean, otsailaren 7an egingen dute.



Uharte Arrak egunerokotasuna ospakizunagatik aldatuko dute bihar.

SAKANA



Euskara eta gobernuko goi erakundeak

Historian zehar izandako harremana aztertzen duen liburua aurkeztu dute

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) atzo aurkeztu zuten *Euskara gobernuko goi erakundeetan Historian zehar* (Pamiela) liburua. Juan Madariaga Orbea egitarretarra eta Alvaro Adot dira liburuaren koordinatzaileak. Aurkeztu berri den obran 2013ko azaroan NUPen ospatu zen jardunaldi zientifikoan aurkeztutako ponentziak jasotzen dituzte. Haien artean dago Madariaga beraren bat: Hizkuntza bitartekaritza herritar euskaldunen eta instituzioen artean, 1600-1840.

Euskara eta gobernuko goi erakundeek XVI. eta XX. mendeen artean izandako harremana hainbat arlotik aztertu zuten: soziolinguistikoa, juridikoa, historikoa edota administratiboa. Aztertutako arteen daude: Nafarroako Errege Kontseilua, Behe Nafarroako Errege Txanizleria, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Iruñeko elizbarrutiko tribunalak, Euskal Herriko zenbait kontzeju eta udal eta beste.

>> Altsasu

Ollo Geroa Baiko koordinatzaile berria

Geroa Baik asteartean jakinarazi zuen Altsasuko herri-guneko koordinatzaile berria Javier Ollo Martinez dela. Altsasuko abokatu gazteak Unai Hualderi hartu dio lekukoa. Ollok, herrigunea osatzen duten gainontzeko koalizio kideekin batera, Altsasuko gai edo gai orokor interesgarriak aztertu, eztabaidatu, landu eta bateratzea izanen ditu egin-kizun. Baita, besteak beste, koalizioaren herriko hautetsiak sostengatzea edota Geroa Baiko Kontseilu Nagusiak edo Batzorde Iraunkorrak kontsultatzen dizkieten kontuen gainean eztabaidatu eta erabakiak hartzea ere.

>> Aizkorbe / Hiriberri

Irabazi handiak baso aprobetxamendutik

1999ko abenduan Frantzian izandako haizete indartsuek milaka zuhaitz bota zituzten. Haiek merkaturatu zituzten eta, ondorioz, herrietako baso aprobetxamendua berezko prezioa baino merkeago saldu zituzten urteetan udalek. Badirudi efektu hura bukatu dela, eta biomasak egur eskaera handitu du. Hala, toki erakundeek jarritako prezioa baino handiagoan saldu dituzte.

Hori izan da Aizkorbe eta Hiriberriko kontzejuen kasua. Lehenak 37.848 eurotan saldu du lotea, aurreikusitako baino 5.639,55 euro gehiagotan. Hiriberriko Kontzejuak, berriz, bi loterengatik espero baino 14.726,68 euro gehiago eskuratu ditu; guztira, 63.261,68.

>> Etxarren

Kontzejuak baso aprobetxamendua saldu nahi du

Etxarrego Kontzejuak Elordi dermioko zuhaitzekin osatutako lote bat saldu nahi du. Baso aprobetxamendua 4.011 larizopinuk osatzen dute, 913 metro kubiko zur eta 626,4 metro egur egiten dutenak. Kontzejuak haiengatik 22.645,47 euro eskatzen ditu. Interesa dutenek euren proposamenak otsailaren 12ra arte aurkez ditzakete Arakilgo udaletxean.

>> Altsasu

Baso salmenta errentagarria

Udalak bi lote eskatutakoa baino 30.039,66 euro gehiagotan saldu ditu

Balankaleku-Nikolas-lantegiko 7.223,5 metro kubiko pagoren truke udalak 84.017,48 euro eskatzen zituen eta 14.466,52 euro gehiagotatik saldu du. Explotaciones Forestales Zubillaga Saralegui 98.484 eurotan eskuratu du lotea. Bestalde, Balankaleku-Asentuko 6.245,8 metro kubiko pagorengatik 77.166,86 euroko eskaera egin zuen udalak. Arpana Formacion Forestalek 92.740 eurotan bereganatu du lotea, 15.573,14 gehiago.

AMAYA taberna

BERTSO SAIOKO SARRERA erakutsi eta...

PINTXO POTEA 2€

Amaya kalea 11 · IRURTZUN

9 lagunendako

TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025

IRURTZUN

JUANLUZENE

SAGARDOTEGIA

urtariletik maiatzera

tel. 948 604 571

680 652 183

ODERITZ

PPSOE,

Euskal

Telebista

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

UHARTE ARAKILGO UDAL

IGERILEKUETAKO

TABERNA ETA JATETXEA

ERRENTAN EMATEKO

IRAGARKIA

Baldintzen plegua: Uharte Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Uharte Arakilgo udaletxean, 2015eko otsailaren 27ko 14:00ak baino lehen.

Uharte Arakilen, 2015eko otsailaren 4ean.

Javier Rodríguez Astiz,
Alkate Presidente.

UHARTE ARAKILGO UDALA

>> Uharte Arakil

Igerilekuko jatetxea errentan

Uharte Arakilgo Udalak igerilekue-tan dagoen taberna-jatetxea errentan eman nahi du. Urteko 2.000 euroko errenta (BEZ gabe) ordaindu beharko lirarteke. Ostalaritza azpiegitura kudeatzen interesa duenak otsailaren 27ra arteko epea du bere proposamenak Uharte Arakilgo udal-letxean aurkezteko.

>> Altsasu



Parke berria eskolarendako

Erabileraren poderioz hondatua zegoen haurren jolas parkea kendu egin du Altsasuko Udalak. Eguraldiak lagunduz gero, aste honetan berria jartzeko asmoa zuen udalak. Lanak despeditu ondoren haurrendako jolastoki berriak kautxuzko zoru berria, bitxirista, roko-dromoa, sokaz egindako eskaladarako sarea, uztai jokoa eta bi zabu izanen ditu, besteak beste.

Lanek 22.632 euroko aurrekontua dute eta udalari hura estaltzen La Caixaren gizarte ekintzak lagundu dio, 7.000 euroko diru-laguntza emanez. Altsasuko bulegoko Javier Pablo Leon (zuzendaria) eta Manoli Cantero (langilea) Garazi Urrestarazu alkatearekin eta Unai Hualde zinegotziarekin eguberritan izan ziren eskolan berri beharrek azpiegitura ikusten. Haur jolas parke berriari hamarkada bateko bizia aurreikusi diote.

PALESTINAKO ESKOLA

Altsasuko Udalak 3.000 euro bideratu ditu gizarte lankidetzarako proiektuko diru-sailetik Palestina-ko eskola baterako.

>> Irañeta

Atxun Zarkoarekin hitzordua

Irintarrek bihar ospatuko dute inauteria. Ohi dutenez, Txapel Azpielkar-tean ardi tripotxak gosalduko dituzte 10:00ak aldera. Eta ondoren, inauteri irintarreko pertsonaia den Atxun Zarkoa prestatu eta moztar- roa jantziko dute (bizkarrean zintak dituen jantzi txuria, gerriko gorria eta zintadun txanoa). Moztarrotuak musikaz lagunduta herrian barna kalejiran ibiliko dira. Segizioak, hori bai, ezkongai dauden emakumeen etxeetan geldialdiak eginen ditu, zinta batez lotutako ezpel adartxo osatutako paxoak uzteko. Ardikia bazkaldu ondoren, 18:00ak aldera, argia joaten ari denean, kalejiran abiatuko dira moztarrotuak elkartetik. Eta haiekin batera gudi batean doan Atxun Zarkoa. Trikitilariak festa doinuak joko dituzte. Kalejira hasitako tokian despedituko da eta ohikoa denez, Atxun Zarkoak sutan bukatuko du. Afariak iho-te ospakizuna luzatzeko oinarria jarriko du Irañetan.

>> Irurtzun

Inauteriko desfilea prestatzen hasia

Aurrekoetan bezala, aurten ere Irurtzongo inauterietan koadrila moztarrotuak desfilea izanenda. Otsailaren 14rako dago iragarria, 18:00etan, plazan. Moztarrotuak pasarelan parte hartu nahi duten koadrilek euren dako aukeratu duten musika Pikuxarren euskal txokoa utzi beharko dute, taldearen izenarekin batera. Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanbladak jakinarazi duenez, asteazkena baino lehen egin beharko dute hori koadrilek.

>> Altsasu

Porrotx gaztetxean

Asteazkenean, 17:00etan, izanen da

Aurten 25 urte beteko ditu gazte-txeak eta, hori dela eta, Altsasuko Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi iragarri ditu aurtengorako. Lehena, heldu den asteazkenean Porrotx pailazoak gaztetxera egingen duen bisita. Bihurrikeriak, muxuak eta txokolate jatea iragarri ditu AGAK. Sarrera doan izanen da.

SAKANA

Turismo arloko eragileen topaketa

Astelehenean, 17:00etan, Altsasuko Basoko Mari artisautza gunean biltzera gonbidatuta daude ostalaritzako jabe, landetxeetako jabe, artisau eta turismoarekin zerikusia duten guztiak

Sakanako turismo eragileak biltzen dituen Bidelagun elkarteak jakinarazi digunez, hurrengo aste-etan ibarreko lau herritan turismoaren inguruko topaketa txiki bana egiteko asmoa du. "Turismoaren inguruan jarduten duten norbanako eta enpresak beraien artean ezagutzea" du helburu topaketak. Baita Bidelagun elkarteak ezagutaraztea eta ibarreko turismo eta kultur ekimen ezberdinak ezagutaraztea ere.

Horregatik, topaketa horietara ostalaritza, landetxe, artisau

Informazio gehiago

680 532 232 (Alfonso) eta 650 863 036 (Bea)



Bidelagun elkarteko zuzendaritzak topaketan parte hartzeko gonbitea eginez.

edota turismo arloarekin harremana izan dezaketen sektore guztietako pertsonaiei gonbitea luzatu die Bidelagun elkarteak. "Bisitariei Sakanan dauden aukera ezberdinak ezagutaraztea eta haien egoaldia gogoangarria bihurtzen

lagundu nahi duten guztiei zuzenduak daude topaketa txiki hauek", zehaztu digute. Aurreneko topaketa astelehenean egingen dute, Altsasun. 17:00etan dago hitzordua jarritan, Basoko Mari artisautza gunean (Gartzia Ximenez, 44).

>> Etxarri Aranatz / Olatzagutia



Itzultzailea, Etxarriko PPko zinegotzia eta beste hautetsi batzuk. ARTXIBOA

Udalek plenoetako hizkuntza erabileragatik PPri erantzun diote

Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa Parlamentuan aurkeztu zuten asteartean eta hizkuntza politikari buruzko eztabaida bihurtu zen. PPko Amaia Zarranz parlamentariak adierazi zuenez, Etxarri Aranatz eta Olatzagutian euren boto-emaelek ez dute hizkuntza eskubideak bermatuta. "Etxarriko udal bilkuran euskaraz hitz egiten dute eta PPko zinegotziari inork ez dio itzulpenik eginen. Horrek Bilduren demokra-

ziaren kalitate falta erakusten du. Eta Olatzagutian gauza bera gertatzen da".

Etxarri Aranatzko Udalak ohar bidez azaldu du hautetsi guztiek nahi duten hizkuntzan adierazteko aukera dutela, itzulpen zerbitzua baitago. Bestalde, Olatzagutiko Udalak PPkoaren esanak ukatu ditu, udal bilkurak gaztelaniaz direla. Horregatik, bi udalek Zarranzi bere esanak zuzentzeko eskatu diote.

>> Olatzagutia



Espedientea Cementos Portland Valderrivasi

Albiste agentziek jakinarazi dutenez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak hainbat porlandegiri zehapen espedientea zabaldutako die, tartean Cementos Portland Valderrivasi. Enpresek informazioa partekatu, prezioak zehaztu edo haien artean porlanaren, zementuaren eta eratorrien merkaturak banaketa egin ote duten ikertuko du batzordeak. 18 hilabeteko epea du instrukzioarako eta Lehiaren Defentsaren Legea urratu den ebazteko. Batzordeak, espediente horren barruan irailaren 16an, 17an eta 18an enpresen eta porlanaren patronalaren egoitzetan inspektzioak egin zituzten.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Santa Agedan

Eguneko menua

Asteburuko menua

948 467 876 • Altsasu

LARRAZA
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

Jose Larraza Legarra
Etxebizitzaren administratzailea
Kolegiatu zenbakia: 378

Bizilagunen komunitateak
Etxebizitzaren administrazioa

Etxaburua kalea, 1 beheko solairua
31013 Berriozar
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634
Jose.larraz@gmail.com

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAINITZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak

Iruñea
948 382 271 - Maturak: **671 619 018**
www.prevencionezkaba.com

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomaturia
(Nafarroako Unibertsitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago **654 910 289** telefonoan
Estafeta 16, atzea • Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura**
- Elikadura arazoak**
- Nutrizio-hezkuntza**

Euskara. Bai, baina ez


2011ko Nafarroako mapa soziolinguistikoa agerian utzi du Sakanako herri euskaldunenetan euskararen ezagutzak atzera egin duela. Hezkuntzak bultzatuta herri erdaldunenetan gure hizkuntzaren ezagutzak gora egin du

Mapa soziolinguistikoa batek hizkuntza baten osasun egoeraren argazki zehatza ematen du. Aparteko lan tresna da euskara zerbitzuetako teknikari, euskara elkarre eta hizkuntzaren normalizazioan lan egiten duten bestelako eragile euskaltzaleren eskutan. Nafarroan 2011n egin zen azken mapa soziolinguistikoa. Oraindik ez da haren aurkezpen ofizialik egin. Baina Jose Iribas hezkuntza kontseilariak bitan eman ditu inkestaren emaitza batzuk. Bietan ere Euskararen Legearen aldaketaren kontra azaltzeko. Izan ere, heldu den ostegunean Nafarroako Parlamentuan D eredua Nafarroa guztira zabaldu edo ez bozkatuko du.

Iribasek mapa soziolinguistikoa egin duen erabilera partzial horrek dokumentuan jasotako emaitza zehatzen berri ez izatea ekarri du. Hala ere, asteartean aurreratu zuen zirriborroak hainbat datu esanguratsu dituela. Euskararen garapena Nafarroan mantotu egin da. Ezagutzak gora egin badu ere, erabilerarekin ez da halakorik gertatzen.

Eremu euskalduneko datuak

1991n eremu horretan bizi ginen biztanleen %60,18k ezagutzen zuten euskara. Hamarkada bat geroago 1,27 hazi zen kopurua baina 2011ko



inkestan %58,2koa da ezagutza. Lehen inkestan baino 1,98 puntu txikiagoa. Euskara ulertu bai baina hitz egiten ez dutenen kopurua bi hamarkadetan % 9,05etik %13,05era pasa da, lau puntu gora. Inkestaren arteko azken hamarkadan euskara ez dakitenen kopurua 2,18 igo da, % 27,04an kokatuz.

Adinari dagokionez, 34 urte bitarteko adin tartetean aurreko inkestetan baina ehuneko handiagoak daude. Baina adinean aurrera egin ahala euskararen ezagutzak behera egiten du 1991koarekin alderatuta, 35 urte-tik aurrera biztanleriaren erdia edo soilik baita euskalduna. Generoari erreparatuta, eremu euskalduneko emakumezkoen eta gizonzkoen ia % 60a euskaldunak dira. Erdaldunak, berriz, herena baino pixka bat gutxiago.

Haurren ama hizkuntzari dagokionez, 1991n euskara %54,73rena zen eta 20 urteren bueltan %42,74rena. Bi hizkuntzetan hazitako haurren kopurua %6,11tik %10,25era pasa da. Eremu euskalduneko euskara edo gaztelania ez den beste ama hizkuntza batean bizi diren haurrak %0,64tik %4,19ra pasa dira.

Eremu euskalduneko etxean ia erditan (%47,54) gaztelaniaz hitz egiten da. 20 urtean 5,08 puntu igo da. Eta nagusi da adin tarte guztietan. 2011n euskaraz etxean %33,56an aritzen ziren soilik. Bietan %13,28an aritzen ziren.



Zelandi IP
Zelandi 18 • 31800 ALTSASU
948 564 839
cpalsasu@educacion.navarra.es
<http://zelandieskola.educacion.navarra.es>

2015-2016





Haur Hezkuntza (3-6 urte)
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)



MUNDUKO DANTZAK

• A eta D ereduak
• Ingelera eta informatika
Haur Hezkuntzatik
• Jangela zerbitzua

Aurreinskripzio epea:
otsailaren 9tik 13ra

Sakanako mapa soziolinguistikoa

Sakanako elebidunen ehunekoen garapena herrika

Herria	1991	2001	2011
Arakil			
Irurtzun			
Irañeta			
Uharte Arakil			
Arruazu			
Lakuntza			
Arbizu			
Ergoiena			
Ettxarri Aranatz			
Bakaiku			
Iturmendi			
Urdiain			
Altsasu			
Olatzagutia			
Ziordia			



leriaren %50 eta %80 artean euskara ezagutzen duten herriak (Lakuntza eta Ettxarri Aranatz). Eta, azkenik, %20 eta %49,9 arteko ezagutza dutenak (Irañeta, Uharte Arakil eta Iturmendi).

Euskararen ezagutzaren ehunekokak behera egin duen herrien kasuak bitan banatzen dira. Alde batean daude %80ko ezagutza baino gehiago zuten herriak, herri euskaldunek, 2011ko inkestan maila bat behera jaitsi eta %50 eta %80 artean kokatu direnak; Arruazu, Arbizu eta Urdiain hain zuzen ere. Beste aldean Ziordia dago. Euskararen ezagutzak 2001ean gora egin eta %20 eta %49,9 artean kokatu arte. Baina azken inkestan ezagutzak behera egin du eta 1991ko datuetara bueltatu da (%10-19,9 artean).

Sakanako biztanleria ezagutza tarte bakoitzeko

Ehunekoak	1991*	2001	2011
	Biztanleak %	Biztanleak %	Biztanleak %
> % 80	2.209 11,78	2.152 11,05	422 2,03
% 50-80	3.592 19,16	3.750 9,27	5.630 27,09
% 20-49	1.345 7,17	12.678 65,14	14.325 68,94
% 10-19	11.595 61,86	880 4,52	399 1,92
Guztira	18.741 100	19.460 100	20.776 100

* Populazioa urteko lehen egunean, INEren datuak.



Nafarroako Gobernuak aurreratu-tako ehunekoen datuek udalerrien artean hiru erritmo erakusten dituzte: aurrera egiten dutenak, mantendu egiten direnak eta atzera egiten dutenak. Euskararen ezagutzak eta, beraz, elebitasunak aurrera egin duen udalerrietan ehunekoak hobetzeko tarte handia

zutenak izan dira: Arakil, Irurtzun, Altsasu eta Olatzagutia. Bi hamarkadetan euskararen ezagutzaren ehuneko bera mantendu duten herrien hiru talde daude. Batetik, Ergoiena, non populazioaren %80 baino gehiagok ezagutzen duen euskara eta 20 urtetan ez den aldaketarik eman. Bestetik, biztan-

Ezagutza tarte guztietan eman dira aldaketak 20 urteak kontuan hartuta. Sakanako herri euskaldunetako (% 80 baino gehiago euskarduna) pisuak 10 puntu behera egin du, % 2.03an geldituz. Ezagutzaren % 50 eta % 80 artean duten herrietako biztanleria handitueginda herri euskaldunetan ezagutza galdu egin delako. Bestalde, ezagutzaren %20 eta % 50 artean duten herrietako biztanleriak izugarritzko gorakada izan du, 61,77 puntu eta 12.980 pertsona gehiago bi hamarkadetan. Tamaina berean jaitsi da %20ko ezagutza ez duten herrietako populazioaren pisua, 59,94 puntu eta 11.196 sakandar gutxiago. Euskarabideatik ohartarazi dute azken azterketa egiteko ez dutela aurrekoetan bezala zentsu osoa

kontuan hartu, lagin bat baizik. Horrek aldaketak ekarri edo akatserako tarte handiagoa ematen du eta, horregatik, herri txikiak datuak ez ematea erabaki dute. Euskarabidean Ziordiarenean adibidea jarri digute, “% 19aren mugan dago, zentsu guztia hartu balitz agian beste multzoan legoke”.

Adin guztietan zainduko zaitugu



KLASE BIDERATUAK

HIPOPRESIBOAK

ESFERODINAMIA

K-STRETCH

TONIBAR

**ERDITU AURREKO ETA
ONDORENGO EGOKITZE KLASEAK**

LARA GOIKOETXEA

354. ELKARGOKIDE ZENBAKIA

- Fisioterapia, neurologia
- Ictus/acu
- TCE
- Esklerosis anizkoitza
- Parkinsona
- Tetraplejiak / paraplejiak
- Endekapenezko gaixotasunak
- Kume zentroan kontsulta / etxera zerbitzua

ESTEFANIA CASTILLO CASTRO

7.808. ELKARGOKIDE ZENBAKIA

- Erditu aurreko prestakuntza: indibiduala, taldekoa, bikotekoa
- Bularra emateko laguntza
- Esferodinamia, erditzea
- Menopausia: bagina esferen trebatzea, zoru pelbikoaren ariketak

REME NAZABAL LARRAZA

556. ELKARGOKIDE ZENBAKIA

- Fisioterapia, akupuntura, aurikuloterapia
- Zoru pelbikoa, Kume zentroan kontsulta / etxera zerbitzua



centrokume@gmail.com · Tel. 664 36 11 66 · Larrañeta 2, ETXARRI ARANATZ



SAKANA



Mendian proiektua azaltzen. ARTXIBOA

Goi tentsioko hiru argindar linea

Egungo biez aparte, hirugarren batek zeharkatuko luke Sakana Energia Ministerioaren proposamenaren arabera

Industria Ministerioako Energia Estatu Idazkaritzak abenduan *Energia plangintza. 2015-2020 energia elektrikoko garraiatzeko sarearen garapen plana* publikatu zuen. Autopista Elektrikorik Ez plataformak jakinarazi duenez, plan horretan jaso denez egun Sakanan dauden 220 kV-eko bi lineak birpotentziatuko lituzkete. Eta 400 kV-eko beste linea bat eraikiko litzateke. Azken horrek, aurrekoek bezala Deikaztelu eta Itsaso lotuko lituzke.

Plataformako kideek herenegun egindako prentsaurrekoan adierazi zuten, “gaur egun dauden bi lineekin Nafarroako eta Gipuzkoako beharrak bete nahi dituzte, eta argindar linea berria, argindarra Frantziara garraiatzeko erabiliko lukete”. Azpiegituraren kontrako plataformak, beraz, hasieratik ziona berretsia ikusi du agirian: “Oligopolio elektrikoaren politika megalomanoak sortarazitako argindar soberakinak Frantziara eramateko autopista elektriko bat behar dute”. Estatuko energia sistema kritikatu zuten: “instalatua dagoen potentziak elektrizitate eskaera gehien dagoen unekoa bikoizten du”.

Plataformako kideak Nafarroako Parlamentuaren Industria Batzordean urgentziaz agerraldia egiteko eskaera egin dute. “Planifikazioari ekarpenak egiteko epea martxoaren 3an bukatzen da. Baina toki erakundeak prozeduratik baztertuta gaude. Horregatik, Parlamentuari proposatuko diogu Nafarroako Gobernuak bere egin ditzala linearen kontrako gure argudioak eta eskaerak eta Ministerioari aurkez diezaizkiola”. Lagungarri izandadin, txosten tekniko bat egiteko asmoa azaldu du plataformak. Makina bat udal eta kontzejuk, hautetsik eta herritarrek argindar linearen kontra daudela nabarmendu dute. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Kontzentrazioa

Larunbatean, 12:00etan, Iruñeko Karlos III.a kalean, Nafarroako Gobernuaren egoitza parean. Leloa: **Goi tentsioko linea-rik ez. Ate birakaririk ez.**

>> Arbizu

Balda askatzea eskatu dute

Presoak esan duenez, “ezin gara etsaiak emandako golpeen erantzun hutsean gelditu, eraiki egin behar dugu”.

Ehunka arbizuarrek eta sakandarrak Fran Baldaren askatasuna eta konponbideari erasorik ez egiteko aldarrikatu zuten Arbizun atzo. Euskal Herriko, Kataluniako eta estatuko prozesuak geldiarazteko “estatuko indarrak erreakzio-narioenak ahalegin izugarria egiten” ari direla adierazi zuten akaberan. Saio hori “estatu autokolpetzat” jozuten, “oinarriko eta funtsezko askatasun guztiak bortxatzea eta salbuespen hutsean oinarritzen dena”.

Estatuko indar horiek “alarma” egoeran egonda arrazoi politiko, lurraldekoak eta ekonomikoak oinarri demokratikoekin erantzun beharrean errepresioarekin erantzutea erabaki dute n-garren

aldiz, jakinda bide horretatik dituzten arazoak ez dituztela konponduko”. Testu inguru horretan kokatu dute ilbeltzaren 12ko sarekada eta beste hainbat gertaera. Estatuak ez duela egoera normalizatu bat nahi azpimarratu zen manifestazio akaberan: eztabaida politiko-demokratikoan ez daude eroso, ez baitute ezer Euskal Herriari eskaintzeko”.

Baldak espetxetik esandakoak errepikatu zituzten: “ezker abertzalea aurrera eramaten ari den ildo eta estrategia indartu beharra dago, beste inork ez baitu alternatibarik eskaintzen, ez gatazkaren ondorioak konpontzeko, ez gatazka bera eragin duena, erabakitze eskubidea eta herri honen aitortza lortzeko”.

Presoak eta iheslariak etxeratzea lehentasuna dela eta “indar



Manifestazio burua plazatik abiatzen.

guztia egiten” segitzeko deia luzatu zen Arbizun. Sare eragilea indartzeko deia egin zen. Bestalde, “independentziara eramane gaituen bidea egiteko erabaki

txiki-handiak hartzen segitzeko” beharra azpimarratu zuten, “aldebakartasunez, zain egon gabe”. Euskal Bidea aldarrikatu zuten.

SAKANA

Epaiketa “politiko inkriminatzaileen” kontra, libre

Zortzi sakandarrek berriki izan dituzten edo izanen dituzten epaiketen harira, Libre dinamikak salatu duenez, “Euskal Herriaren erabakitze eskubidea eta horren aldeko lan politikoa ezabatzea da epaiketen helburua”. Epaiaketak “Euskal Herriaren kontrako erasotzat” jo dituzte. Libre-kideen iritziz “gatazkaren oinarria Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoak ukatzean dago. Horrelako epaiketetan disidentzia politikoa kriminalizatu eta giltzapetu nahi dutenak daude”. Azpimarratu dutenez, “konponbide prozesuaren inguruan Espainian gailentzen ari den inboluzio jarrera nabarmena da”.

Libre dinamikatik azaldu dutenez, “Euskal Herriko gizarteak eraso horien guztien aurrean konponbidearen aldeko apustua egiten duela argi dago”. “Epaiketa politikoetan” auzipetuak era baketsuan babestu dituztenek jasandako “bortizkeria” eta elkar-



Libre dinamikako kideak antolatutako ekitaldiak aurkezten.

tasuna “kriminalizatu eta isilarazi” nahi izatea salatu dituzte. Horregatik, herri aske batean

pertsonak libre bizitzeko elkartasunetik konpromisorako urratsa emateko eskatu diete sakan-

Ekitaldiak			
Otsailak 13	19:00	Altsasu	Edurnerekin bat elkartasun ekitaldia
Otsailak 19/28	17:00	Etxarri	Bideo tailerra.
Otsailak 25		Donostia	Edurneren epaiketara joateko deia.
Martxoak 7		Etxarri	Hitzaldia: Desobedientzia. Herri harresia potentzialak eta mugak
Martxoak 14		Etxarri	Libre eguna.

>> Etxarri Aranatz

Urruti vs gertu dokumentala sarean ikusgai

Etxarri Aranatz grabatu zuen Sarek, euskal preso, iheslari eta deportatuaren eta euren senideen testigantza jasotzeko

Etxarri Aranatzko Saretaldeak, euskal preso, iheslari eta deportatuak pairatzen dituzten eskubideen urraketekin amaitzeko sakandarron konpromisoak biltzei ekin zion. Horrela, *Urruti vs gertu* izeneko dokumentala grabatu zuten. Film horretan “senideen testigantza, sakabanaketa politikaren salaketa

eta, azken batean, euskal preso politikoaren eskubideen aldeko aldarrikapena” jasotzen da. Aipatu dokumentala Sakana guztian barna eraikutsi zuten, eta orain internetera igo dute. Youtuben dago ikusgai, ondoko helbidean: www.youtube.com/watch?v=Pw3VR2KrL9g

Egileek diotenez, “datuak, pasarteak, sentimenduak, bizipenak, baina, batez ere, esperantzaz

beteriko dokumental bat izan nahi du aurkezten dugun Urruti vs gertu lan honek: senideen testigantza, sakabanaketa politikaren salaketa eta, azken batean, euskal preso politikoaren eskubideen aldeko aldarrikapena”. Euskaraz da, gaztelerazko azpitu-luekin. Datozen egunetan azpitu-luekin ingelesez, alemanieraz eta portugesez ere jartzeko asmoa dute.



Dokumentaleko pasarte bat.

Zortzi sakandarrek

Arbizuko Fran Balda (Herrira); Arruazuko Aritz Ganboa (Askapena); Etxarri Aranatzko Patxi Arratibel eta Joxe Aldasoro (Ekin); Altsasuko Edurne Martinez (herri harresia); Etxarri Aranatzko Juan Cruz Aldasoro (herriko tabernetan auzia) eta Arbizuko Ainara Ladron eta Olatzagutiko Imanol Salinas (Segi). [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Bideo tailerra

Bideozale eta herri mugimenduetako kideei zuzendua dago tailerra. 20 orduz bideo edizioa eta beste lau orduz sare sozialak erabiltzen ikasiko da. Nork bere ordenagailua eraman beharko du. Saioak Etxarriko liburutegian izanen dira, otsailaren 19, 20, 26 eta 27an (17:30etik 21:30era) eta hilaren 21 eta 28 (9:00etatik 13:00etara). Gehienez 15 pertsona onartuko dira. Izena emateko: bideoikastaroa@gmail.com edo 664 119 600 (Joxe).



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 564 355

679 160 116

(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Bitorino Lanz Galarza jauna

Goian bego

Gure laguna izan zara beti,
mendian eta herrian
agurrik ez.

Sakanako mendizaleak



Vitorino Lanz Galarza

Lanbroa zeukat gordeta
kaxa batean
hirezat
eta eguzkia
hankak berotzeko
bakarrik bahago neguan.

Iturmendiko Aitzkozar elkarteko kideak





Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net



Gurekin zaudete.

75eko zuen kintoak



Lontxo Mazkieran Aramendi

eta bizirik ez dauden 72an jaiotako guztiak

Urak dakarrena
Urak daroa
lurak emandakoa
lurrean gelditzen da.

72ko kintoak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin

948 564 275 telefonora



Julio Botanz

Pedro Goikoetxea

Lucas Motino

Belen Merino

55eko kintoak

Olazti





GRUPO

Funeraria VASCONGADA

Ehorzketak

TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**

www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Pabiloi bat alokagai edo salgai Altsasuko Ondarria industrialdean. 140m2 ditu solairuak, 60m2 solairuarteak, bulegoak eta komunak

polipastoa dute. Mantenimendua eta metalezko errementaria lanak egiteko prestatua. TI 649 44 35 91

Urdiaingo Kaluxa jatetxea alokatzen da. TI 680 87 10 18 eta 948 46 92 91.

Ikastaroak

Belaundaldietan zeharreko terapia. Irakaslea: Jesus Garcia Paria, zenbakien bidezko sendatzailea. Altsasuko San Pedroko bidea 25 landaetxean, otsailaren 22an, igandean, 9:30etatik 20:30etara. Erreserbak Valen 650 02 36 98.

Bazkaria 15 €, mantenu osoa 50€. Ez ahaztu USBa ekartzen.

Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plazzak. Pilates, indoor zikloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazzak betetzeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonon.

Oharrak

Odol-emaileak. Otsailaren 24an, 25ean eta 26an Altsasun arratsalde; 27an Altsasun goizez

Axioren dokumentala. Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 112055951 kontu korrantean edo www.karena.eu plataformaren bidez

JAIOTZAK

- **Maider Galbete Herrero**, ilbeltzaren 24an Olaztin.
- **Jon Oraá Vilas**, ilbeltzaren 27an Altsasun.
- **Rim Hamdi Najmi**, ilbeltzaren 30ean Lakuntzan.
- **Ane Latiegi Angulo**, otsailaren 1ean Aizkorben.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

egin dezake. Informazio gehiago www.axioflores.com

Pilota

Sakandarrak, buruan

Saillkapena:

1.	Ezkurdia-Zabaleta	7 puntu
2.	Berasaluz-Zubieta	5 puntu
3.	Artola-Albisu	4 puntu
4.	Irujo-Barriola	4 puntu
5.	Oinatz-Aretxabaleta	3 puntu
6.	Xala-Merino II	2 puntu
7.	Retegi Bi-Rezusta	2 puntu
8.	Olaizola II-Beroiz	1 puntu

Ezkurdia-Zabaleta liderrek jokotutako zazpi partidak irabazi dituzte eta Berasaluz-Zubieta bigarrenak 5 garaipen dituzte. Asteburu honetan elkarren kontra ariko dira, sakandarren arteko derbian

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako lehen itzulia bukatuta, ongi doazkie gauzak sakandarrei. Ezkurdiak eta Zabaletak jarraitzen dute buruan, orain arte jokotutako 7 partidetatik guztiak irabazi baitituzte (7 puntu), eta finalerdietan hanka t'erdia sartua dute. Berasaluzerekin bikoa osatzen duen Aitor Zubietak ere kontentu egoteko arrazoi asko ditu, saillkapenean bigarrenak baitira, 5 garaipenekin (5 puntu). Eta atzetik indartsu datoz Artola-Albisu eta Irujo-Barriola, biak launa punturekin. Jose Javier Zabaleta atzelari onena dela demostratzen ari da. Gehien jotzen duen atzelaria da eta momentuz, tanto gehien despeditu dituen (17).

Ezkurdia-Zabaleta, huts egin gabe

Ezkurdiak eta Zabaletak txapelketan huts egin gabe jarraitzen dute. Larunbatean, Idiazabal, Altuna III.aren eta Merino II.aren gainetik pasa ziren eta 9 tantotan utzi zituzten. Lau pilotariak ez ziren fin hasi eta zenbait akatsegin zituzten. Altunak egindako hiru tanto ederreier esker, 5-7 aurreratu ziren Altuna eta Merino, baina Zabaleta atzean agintzen hasi zen, Ezkurdiak aukerak izaten hasi zen eta arbi-zuarrak ez zuen barkatu: 10 tanto egin zituen segidan eta partida euren aldera bideratu zuen. Ezkurdiaren aginduetara aritu ziren gainontzekoak eta bera izan zen partidako onena. Guztira 14 tanto egin

Orain elkarren kontra



Asteburuan hasierako ligaxkako bigarren itzuliari ekingo zaio. Gaur, ostiralean, sakandarrak elkarren kontra ariko dira lehian Urdulizen, Berasaluzek eta Zubietak zain baitituzte Ezkurdi eta Zabaleta. Akaso Ezkurdi eta Zabaleta dira faboritoagoak, baina Berasaluzek eta Zubieta bikote sendoa dira, saillkapenean bigarrenak eta azkeneko garaipenen ondoren animoz goian daudenak. Hortaz, sakandarren arteko partida lehiatu eta gogorra espero da. Material aukeraketa gaur egingo dute, partida baino lehen, eguraldi txarragatik bertan behera geratu baitzen asteazkeneko aukeraketa.

zituen, horietako bi saketik.

Zubieta partidako onena

Berasaluzek eta Zubietak puntu garrantzitsua lortu zuten Markinan, Oinatz Bengoetxearen eta Aretxabaletaren kontra partida oso gogorrean irabazi eta gero (22-17). Partidaren gakoa atzeko koardroetan Aitor Zubietak izandako nagusitasunean egon zen. Nahiz eta Aretxabaletak etxean jokatu eta sufritzen jakin, etxarriarra nagusi izan zen pilotioan. Horrek lana erraztu zion Pablito Berasaluzeri

eta, bereziki, bizkaitarrak gantxoarekin min handia egin zuten Oinatz eta Aretxabaletari. Hasieratik aurreratu ziren Berasaluzek eta Zubieta 5-1, eta nahiz eta Oinatz eta Aretxabaleta 8-6ra gerturatu, tanto luze eta gogorretan lan handia eginez nagusitu ziren Berasaluzek eta Zubieta. Pilota aldatu eta arriskatzea erabaki zuten arerioek eta emozioa bueltatu zen frontoira. 21-17 gerturatu ziren, baina, azkenean, 22-17 gailendu ziren. Partida bikaina egin zuen Zubietak eta Berasaluzek.

Atletismoa



Binakakoa. 8. jardunaldia

Berasaluz-Zubieta / Ezkurdi-Zabaleta (ostiralean, 22:00etan, Urdulizen. ETB1)

Urrutikoetxea-Beroiz / Artola-Albisu (larunbatean, 17:30ean, Labriten)

Oinatz-Aretxabaleta / Retegi Bi-Rezusta (igandean, 18:00etan, Tafallan)

Irujo-Barriola / Xala-Merino II (igandean, 17:00etan, Logroñon. ETB1)

Espainiako Klub Artekoan Irurtzune eta Altsasuk berdindu

Espainiako Klub Arteko Pilota Txapelketako 4. jardunaldian, eskuzko modalitatean, A multzoan, Irurtzune San Cristobal izan zuen aurkari. Banakakoan Irurtzune Armendarizek gutxiatik galdu egin zuen San Cristobaleko Arreseren kontra (10-5, 5-10 eta 3-5), eta lesionatuta despeditu zuen partida. Binakakoan, aldiz, Irurtzune ordezkari Ongayk eta Irañetak partida bikaina egin zuten eta garaipena lortu (7-10, 10-9 eta 5-3). B multzoan Altsasuk eta Paz de Zigandak ere berdindu egin zuten. Banakakoan Paz Zigandak Rekalde nagusitu zitzaion altsasuarrari (10-3, 0-10 eta 1-5), baina binakakoan Altsasuko Azpiriketa Peñasek 10-5 eta 10-4 irabazi zieten Paz Zigandako Zuastiri eta Telletxeari.

Elurrarekin ere korrika egitera

Mikel Lakuntza monitorearen argibideak jarraituz, elurretan ere korrika egin daitekeela erakutsi zuten emakumeen atletismo ikastaroan aritzen diren emakume sakandarrak. Elurpean aritu ziren korrika, Dantza lekun.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

19. JARDUNALDIA

MENDI - LAGUN ARTEA (atzeratuta)
Elurrarengatik eta eurirengatik preferente mailako lehen multzoan jokatzekoak ziren 8 partidetatik 5 atzeratu egin ziren, tartean Mendigorri Mendik eta Lagun Arteak jokatu behar zutena, zelaia urez gainezka zegoelako. Litekeena da atzeratutako partidak martxoaren 19an jokatzeko.

Saillkapena >>

1.	Mendi	44 p
11.	Lagun Artea	19 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - GARES
(igandean, 16:15ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

19. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ - DONEZTEBE (atzeratuta)
ALTSASUK (atsedena)
Igandean Etxarri Aranatz liderrak eta Doneztebek San Donato zelaian jokatu behar zuten partida atzeratu egin zen, elurra eta euria zela eta. Altsasuk atsedeen jardunaldia zuen.

Saillkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	43 p
5.	Altsasu	31 p

Asteburuko jardunaldia

SALESIANOS - ETXARRI ARANATZ
(igandean, 18:30ean, Orkoienan)
BERRIOZAR - ALTSASU
(igandean, 12:30ean, Berrioarren)

Futbola

Asteburu honetan Kimuen Futbol 8 Topaketarik ez

Santa Ageda ospakizunengatik ez da jardunaldirik jokatu

Santa Ageda ospakizunak direla eta, Mank-ek antolatutako Sakana Kimuen Futbol 8 Topaketak atsedena hartuko du asteburu honetan. Hurrengo jardunaldia, 12.a, otsailaren 15ean jokatu da. Aurreko igandean 11. jardunaldia jokatzeko zen, baina jardunaldia atzeratzea erabaki zen, elurrarengatik.

Areto futbola

Futsalsakanan 12. jardunaldia jokoan

Futsalsakana txapelketan Iturmen-dik bere lehen garaipena lortu zuen, Arbizu harrobiari 4-6 irabazita. Hijos de perla eta Auzomotojorik izandako lehia estuan lehenengoak nagusitu ziren, 6-5. Beste bi partidak -Arbizu-Racing San Migel eta Bunker-Back Street Boys- atzeratu egin ziren.

12. jardunaldia

Gaur, ostiralean

20:00etan: Iturmendi - Arbizu

21:00etan: Bunker - Arbizu harrobia

Bihar, larunbatean

15:00etan: Back Street Boys - Auzomotojorik

16:00etan: Racing San Migel - Hijos de perla

948 461 734
Burundabide 5
ETXARRI ARANATZ
948 500 392
Dos Hermanas 34
IRURTZUN

MS 241 C-M	Lehen: 749 €	orain 629 €
MS 261 C-M	Lehen: 849 €	orain 729 €
MS 362 C-M	Lehen: 989 €	orain 849 €
MS 461 C-M	Lehen: 749 €	orain 629 €
MS 661 C-M	Lehen: 1.349 €	orain 1.099 €

MOTOZERRA ESKAINTZA
Urtarrilaren 19tik
otsailaren 13ra.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Saskibaloia

Sakanako Saskibaloi Topaketen 3. jardunaldia jokoan

Altsasuko Zelandin, igandean, 11:00etan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Sakanako II. Saskibaloi Topaketen 3. jardunaldia jokatu da igandean Altsasuko Zelandi kiroldegian, 11:00etatik aurrera. Aipatu topaketetan premi-ni mailako taldeak lehiatzen dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak, Altsasuko Saskibaloi Taldekoak, Irurtzongo Saskibaloi Taldekoak eta Andra Mari ikastolako Saskibaloi Taldekoak. Helburua saskibaloia sustatzea eta Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremana bulkatzea da. Ez da txapelketa lehiakorra, eta horregatik ez da sailkapenik egingen.

Sakanako Saskibaloi Topaketak. 3. jardunaldia

Igandean, 11:00etan, Zelandin 11:00etan: Altsasuko Oreinak – Altsasuko Basurdeak 11:00etan: Etxarriko Arranoak – Irurtzongo Amuarrainak (Etxarriko Lehoiak atsedean)

Automobilismoa

Goikoetxea, Irigoien eta Lopez sarituak

2014ko Nafarroako Automobilismo Txapelketako galako hiru sari Sakanara etorri dira

Ilbeltzaren 17an Nafarroako Automobilismo Federazioak 2014ko Nafarroako Automobilismo Txapelketen sari ematea egin zuen Pamplona Catedral Hoteleko “La Capilla” aretoan. Bertan izan ziren Nafarroako Automobilismo Federazioko presidente Nacho Calvo, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendariorde Pedro Arozarena, Euskadiko Automobilismo Federazioko presidente Angel Gurrutxaga eta RACVN eta motorraren munduko beste hainbat ordezkari.

Nafarroan antolatutako Automobilismo Lasterketa eta Txapelketa guztietako pilotu, kopilotu eta eskuderia onenak saritu ziren, eta antolakuntzak guztira 48 sari banatu zituen. Tartean 3 sari etorri ziren Sakanara. Javier Goikoetxea olaztiarrak Nafarroako Rally Txapelketako 2. kopilotu onenaren saria jaso zuen, eta Arkaitz Irigoien bakaikoarrak Nafarroako Rally txapelketako Formula libreko 3.



Goikoetxea eta Irigoien, saria jasotzen.



NAFARROAKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

pilotu onenaren saria. Bukatzeko, Iban Lopezek sari berezia jaso zuen: Ford Focus Koparen barruan “irudiaren saria” eman zioten pilotu olaztiarrari,

autoa txukun izan eta autoaren eta taldearen irudi bikaina emate-gatik. Ford Focus Kopak 5 lasterketa zituen eta olaztiarrak lautan parte hartu zuen.

Areto futbol

Bartzelona liderraren kontra ezin

Magnak 6-2 galdu zuen liderraren kontra eta orain ostiralean Burelaren kontrako partida prestatzen burubelarri daude irurtzundarrak

Magna Nafarroa Xotak ezin izan zion Bartzelona liderrari sorpresa eman. Bartzelona jaun eta jabe izan zen, bereziki partidaren bigarren zatian, eta 6-2 nagusitu zen. Hala ere, Imanol Arregiren mutilek aurpegia eman zuten uneoro. Bartzelonaren kalitateak erabaki zuen.

Bi baja garrantzitsurekin ekin zion partidari Magnak: Jesulito partida baterako santzionatua zegoen eta Murga bajaran. Wildek Bartzelona aurreratu zuen. Carlitosek berdintzeko aukera izan zuen, baina Bartzelonako atezainak geldialdi bikaina egin zuen. Bartzelonak bigarren sartu zuen, baina Magnak ez zuen behera egin eta Ibarrak 2-1 hurbildu zuen Irurtzongo taldea. Xotak berdintzeko aukera izan zuen, baina ez zuen asmatu, eta Bartzelonako Lin izan zen zortea alde izan zuena. Horrela, 3-1eko markagailuarekin joan ziren bi taldeak atsedenaldira.

Bigarren zatian Bartzelona nagusi izan zen. Berehala Gabriel 4-1 ezarri zuen markagailuan. Berehala Arik Bartzelonaren bosgarrena sartu zuen eta horrek hankaz gora jarri zuen Magna. Hala ere, irurtzundarrek saiatzen jarraitu zuten eta Carlitosek Magnaren bigarren gola sartu zuen. Atezain-jokalari formularekin dena arris-

Ikusleen errekorra

Zale berdeak Magna taldearen animatzaile nekaezinak dira. Denboraldi honetan Iruñeko Anaitasunak jokatu diren ligako 9 partidak kontuan hartuta, ikusleen batez bestekoa 2.400 pertsonetakoa izan da. Hiru partidetan, gainera, aforoa bete egin zen: Bartzelona, Aspil Vidal Ribera de Navarra eta Inter Movistar taldeen kontrako partidak ikusteko sarrera guztiak saldu zituen Magnak. Orain arte Tatono Arregi irurtzundarrak zuzentzen duen klubak ez du izan tamaina horretako jarraipenik, eta horregatik pozik daude Magna Nafarroa Xotakoak. Xotako zaleak geroz eta gehiago dira, eta horretan asko laguntzen du sarreraren prezioak. Izan ere, abonatuaren karneta denboraldi osoarako 45 eurokoa da eta famili-abonoa 70 eurokoa. Prezio herrikoi hauek direla medio, Magna Nafarroa Xotak 2.000 bazkide inguru ditu. Eta eguneko sarreraren prezioa ere herrikoia da, 10 eurokoa, Bartzelona eta Aspil Vidalen kontrako partidak salbu, kluba laguntzeko egunak izan baitziren (15 euro).

katu zuen Magnak, baina kontrerasobatean Bartzelonak seigarren gola sartu zuen eta horrela despeditu zen partida (6-2). “Nahiz eta kontrako markagailua izan, taldeak aurpegia eman du uneoro, ez dugu burua makurtu eta baloi guztiak borrokatu ditugu. Ez dugu partida txarra egin, baina Bartzelonaren kontra akatsak oso garesti ordaintzen dira” azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Hurrengo arerioa: Burela

Bartzelona da liderra (52 puntu), El Pozo Murciari eta Inter Movistarri puntu bakarra atereaz. Magna Nafarroa 8.a da, 30 punturekin. Gaur, ostiralean, Magnak 26 punturekin 9.a den Burela hartuko du Anaitasuna pabilioian, 20:30ean. Arerio zuzenen arteko partida da eta ea Magnak konfiantza berreskuratu eta hiru puntuak lortzen dituen.

Koxka Europa

Altsasuko Koxka taberna areto futbol taldeak Areto Futboleko Klubaren Espainiako Txapelketa irabazi zuen ekaina bukaeran, Valladolideko Panificadora taldea 4-1 menpean hartuta. Estatuko txapeladuna izanik, maiatzaren 4tik 9ra Lloret de Marren jokatu den Europako txapelketan aritzeko gonbitea jaso zuen. Lehiaketa prestatzeko Xota Gurpearen kontra lehiatu ziren, eta nahiz eta 5-1 galdu, itxura ona eman zuten.

NEREA ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA

Ermiñeta kalea 4 - 948 567 331

LAKUNTZA

beletxaguaxe

Nonerabili

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

10 €ko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

% 10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGOA TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

%5eko deskontua zerbitzu guztietan

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Santa Ageda ospatzera!

Ziordian hiru eguneko festa

Ziordian aurtenez dago kintoriketa Unai, Ander eta Eider kinto zaharrek eta Gorka eta Aiara kinto-gazteek ospatuko dute festa. Gaur bilduko dira elkartean, hamaiketako egitera. Ondoren bazkaria eta afaria etorriko dira, eta Altsasura joko dute parrandara. Larunbata dute eskatzeko eguna. Egun honetan Ziordiko gainontzeko kintadak ere mahaiaren inguruan bilduko dira. Arratsalde iluntzean Altsasura joko dute, jai girora. Igandean, bazkaltzera eta afaltzera bilduko dira.



Olaztiko kintoek asteazken gauean hasi zituzten ospakizunak. UTZITAKOA

Olaztin hamaikakoa ospakizunetan

Asteazkenean hasi zituzten ospakizunak. Aurten hamaika kinto dade: Asier Cruz, Asier Vicente, Iñigo Bujanda, Ainhoa Martinez, Irune Mendieta, Lide Agirre, Izaskun Anton, Kepa Galbete, Naroa Barriga, June Ezeolaza eta Itsaso Mendoza. Atzo, Santa Ageda egun handian, eskean eta ospatzen aritu ziren. Opilak banatu zizkieten alkateari, medikuari, apezari eta herriko gazteenari eta adinduari.

Gaur bazkaltzera bilduko dira eta 22:30ean gaztetxeandagoen kontzertura -Aberri Txarrak, Altxatu eta DJ Bul- joanen dira. Bihar eskean hariko dira, eta Olaztiko kintada guztiak batuko zaizkie ospakizunetan. Plazan dantzaldia izango da Alaiki taldearekin, eguraldi txarra eginez gero, frontoian. Ospakizunak domekako bazkariarekin despedituko dituzte.

Altsasun 60 neska-mutikok ospatuko dute festa

Altsasuko 2015eko kinta 60 kintoz osatuta dago; 31 neska eta 29 mutil. Aitor Lara izango da erregea, Iosu Apestegia erregeordea, Nerea Navarro erregina eta Idoia Jimenez erreginordea. Atzo, Santa Ageda egunean, neskek eta mutilek batera eskatu zuten. 60 opil prestatu zituzten, kintoetakintabakoitzak berea. Erregea, erregina, erregeordea eta erreginordea joan ziren opilak jasotze-



Altsasuko errege-erreginak, Angel Vergara boteroa eta beste kinto batzuk, lehenengo opilak biltzen.



Diru eskean aritu ziren atzo Altsasuko kintoak. Bestalde, opilak bildu eta herriko fabrika eta komertzioetan saldu zituzten.



ra, aurten botero lanak egin dituen Angel Vergararekin eta txistulariekin. Ateratako guztiarekin 5 egune-

ko ospakizuneko bazkariak eta beste estaliko dituzte. Atzo hasita, astelehenera bitartean,

arratsaldero zortzikoa dantzatuko dute plazan. Juan Cruz Bengoetxea "Piloto" eta Andoni Beramendire-

kin aritu dira zortzikoa, jota eta porru-salda ikasten. Santa Ageda egun handian ere zilarrezko, urrezko eta platinozko ezteiak bete zituztenek kintada ospatu zuten. Gainontzeko kintada guztiak bihar, larunbatean, gehituko dira ospakizunetara.

Urdiainen egun handiak

Bost kinto dira aurten Urdiainen: Gaizka Ocaña, Xabi Larunbe, Migel Machado, Maialen Unanua eta Aritz Irigoien. Haiei kinto gazteak, zaharrak eta beti kintoak batuta, 25en bat bilduko dira Santa Ageda ospatzera. (Ikus elkarriketa 11 Galderetan).

Iturmendin 20 neska-mutiko

Bost dira aurten kintoak Iturmendin: Iñigo Galarza, Aritz Gabirondo, Eneko Lopez, Sarai Aramendia eta Marina Arbizu. Baina kinto-gazte eta kinto-zaharrek batera 20 bat iturmendiak bilduko dira kintoen festa ospatzera. Gaur, ostiralean, Aritzaga elkartean afaltzeko elkartuko dira eta, ondoren, Serguei DJ-k jarriko dizkien doinuekin parranda egingen dute. Larunbatean, berriz, goizeko 10:00etan bilduko dira elkartean gosaltzera. Ondoren, bonboak eta herriko trikitilarien eta pandero-joleen doinuekin eskean ariko dira. Elkartean bazkaldu eta karaokean kantatuko dute. Afaldu ondoren, parranda Altsasun jarraituko dute.

Bakaiku

Aurten 5 bakaikuar dira kintoak, baina 4 bilduko dira ospatzera: Mikel Galarza, Olaia Pozueta, Ibai Senar eta Nerea Zelaia. Baina Santa Ageda kinto zaharrek eta kinto-gazteekin ospatuko dute, eta 11 neska-mutiko bilduko dira festa egunak primeran ospatzeko asmoarekin. Gaur, ostiralean, Bakarrekotxea elkartean bilduko dira bazkaltzera. Fabriketara eskera joateko aprobeztatuko dute. Atzera ere elkartean afalduko dute eta ondoren parrandaren txanda helduko da. Larunbatean goizean, etxeko eskea egingo dute. Legorretako sagardotegi batera joanen dira bazkaltzera eta parranda Altsasun egingen dute. Kinto ospakizunak domekan despedituko dituzte. Elkartean afari-merienda egingen dute eta oraindik ere parrandarako gogoia dutenek azken ahalegina egingo dute.



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

www.bertsozale.eus

2015 IRURTZUN

Kultur Etxea Otsailak 8. 17:30

FINAL-LAURDENAK

JULIO SOTO



ALAZNE UNTXALO



IBAN GARRO



JULEN ZELAIETA



MIGEL MARI ELOSEGI "LUZE"



KOTTE PLAZA







TARIMA BELTZA MENDILLORRIN: Altsasuko antzerki taldea gaur, 19:30ean, Mendillorri izanen da. Bere azken proiektua, *Nunca fuimos heroes* antzezlan eskainiko du.

Nafarroako Antzerki Programaren barruan, obra bera Lizarran (apirilean), Deikaztelun (garagarrilean) eta Allon (irailean) antzeztuko dute.

kultura >>

Punk doinuak kinto ospakizunetarako

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko Maisue-
nea gaztetxean Aberri Txarrak, Altxatu
eta DJ Bull

Aberri Txarrak taldeak asteartean kaleratutako diskoa, *Ertzainis Democracy*,



zuzenean aurkeztuko du gaur Olatzagutian. Lendakaris Muertos taldeko Aitor Ibarretxeren talde berria da eta, aurrekoa bezala, punk estilo hutsarekin: kantulaburrak, azkar-
rak eta zuzenak, zirikatze asmo garbiarekin. Irunberriko Altxatu hiruko gazteak, bestalde, joan den urtean argitaratutako *Hitza* diskoa aurkeztuko dute. Punk-rock doinuak gaua astintzeko. Gualdia DJ Bullen erremix eta bestelako doinuekin bukatuko da.



Lazkoz aulki koloretsuetan

Dozena bat aulki koloretsu eta jolaserako hainbat proposamenekin osatu zen Donostiako Bertso Eguneko ekitaldi nagusia Kursaal-en. Ikusleek jolastu nahi zutela esatearekin batera hasi zen saioa. Eszenatokian dozena bat aulki koloretsu eta beste horrenbeste bertsolari, tartean Eneko Lazkoz. Hiru taldetan banatuta, etxarriarra Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Nerea Elustondorekin aritu zen bertsoaren saioaren azken partean.

+www.guaixe.eus

Lau sakandar Nafarroako Bertsolari Txapelketan



Josema Leitza, Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Oier Lakuntza ariko dira 42. edizioan

Sakanan final-laurdenetako bi saio izanen dira: igandean, 17:30ean, Irurtzongo kultur etxean eta otsailaren 22an, igandean, 17:30ean, Lakuntzako kultur etxean

Noizko parte hartzerik handienarekin, 33 bertsolari, bihar hasiko da 42. Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Sakandarraren parte-hartze handiena ere iza-

nen du txapelketak, lau bertsolarirena: Josema Leitza, Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Oier Lakuntza. Haietako bakarra, Lazkoz, izanen da Sakanan ariko dena, Lakuntzakoan hain zuzen ere. Bestalde, txapelketa aurrera eramateko gai jartzaileen lan taldean Jon Arratibele eta Maider Ansa etxarriarrak ere ariko dira. Azken hori, gainera, Lakuntzako final-laurdene-ko aurkezlea ere izanen da.

Bertsotan lehenik hasiko diren sakandarrak Leitza eta Lakuntza dira. Bihar, 17:30ean, Iruñeko Kata-

krak liburutegian ariko dira Jon Barberena, Aritz Saragueta, Bittor Elizagoien eta Unai Uberetagoenarekin batera. Otsailaren 15ean sartuko da lehian Beltza, Zubiriko Gautxori jatetxeko saioan. Azkena Lazkoz izanen da, hilaren 22an, Lakuntzan iragarri den saioan.

Txapelketa

Bost final-laurden jokatu-ko dira. Bakoitzean seina bertsolari ariko dira eta onenak txapelketan aurrera egiteko txartela eskuratuko du. Puntuazio altuena duten gainon-

Eskaintza

Bertso-saioaren ondoren Irurtzongo Amaia tabernara joan eta sarrera aurkeztu duenak potea eta pintxoak bi eurotan izanenditu.

Igandean Irurtzunen

Kultur etxean, 17:30ean hasita, txapelketako bigarren final-laurdena jokatu-ko dute Julio Sotok, Alazne Untxalok, Iban Garrok, Julen Zelaiek, Migel Mari Elo-segi Luzek eta Kotte Plazak. Fernando Anbustegi izanen da aurkezlea. Sarrerak Pikuxarren eros daitezke: 4 euro 16 urtetik beherakoek eta bertsozale elkarte-ko bazkideek eta 6 helduek. Internetez, bestela, www.bertso-sarrerak.eus atarian.

tzeko 13 bertsolariak pasako dira final-aurrekoetara. Martxoko lehen bi aste burututa jokatu-ko dira hiru final-aurrekoak. Bakoitzeko onena finalean ariko da eta puntuak emanen diete beste boskote bati Elizondoko azken saioan ari-
tzeko aukera, maiatzaren 28an.

Bertsolarien honako lana egin beharko dute: binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian eta kartzelako lana.

Eskaerak eta helburuak

Txapelketak hamar saio izanen ditu, azken urteetan Nafarroako Bertsozale Elkartek transmisio arloan egindako lan isilaren isla direnak. Elkarteko kide Lorea Arburuak aurkezpenean esan zuenez, “lan horren bitartez, gazte eta helduek bertsolaritza ezagutzea lortzen da eta horretan aritzeko aukera izan

dezatela. Gero eta gehiago dira Nafarroako herrietan sortzen ari diren gaztetxo zein helduentzako bertso eskolak”. Hezkuntza Departamentuak Bertso-larritza irakaskuntzan programari duela bi urte finantzazioa kendu zio-la gogorarazi zuen. “Udal eta mankomunitate askok erakutsi duten konpromisoari esker, programa mantentzea lortu dugu, oso murriz-tuta bada ere”. Horregatik, depar-

tamentuari programaberriro finantzatzeko eskatuzion Nafarroako Bertsolari Elkarteko eragileak. Arburuak aurkezpenean esan zuenez, txapelketak bertsolaritza zale-tasuna sustatu edota hura ezagutarazteko balio du. Aldi berean, bertsolari nafarrak ezagutzera emateko erakusleio ere bada. Bestetik, “txapelketaren bueltan bertsolaritzaren alde Nafarroan ari direnak biltzen ditu. Hala 80 bat

pertsonen elkarlanaren fruitu da txapelketa eta urtean zehar antolatzen diren gainontzeko ekimenak”. Nafarroako euskal kulturaren erreferentzia nagusietako bat bihurtu da bertsolari txapelketa, edizio-tik ediziora bai euskaldunen bai erdaldunen artean gero eta ezagunagoa egiten dena. Hala, bertso-laritzak Nafarroan bere itzala handitu egin du.

bazterretik

Aritz Viñas

Birdman BSO

Duela bi aste, nire lagun batzuekin zinera joan ginen Iñarrituren Birdman film berria ikusteko asmoz. *21 gramos*, *Amores perros* eta *Biutiful* sortu zituen mexikarraren film berriari buruzko gauza oso onak entzunak nituen eta beraz, gogohandia nuen bere film berria ikusteko. Film berri honetan oso ondo deskribatzen du pelikula osoan aurrean izango dugun pertsonaiaren izaera eta honen nondik norakoak, eta

pelikulei buruz ezer gutxi jakinda ere esan dezaket, film oso ona iruditu zitzaidala. Hasiera batean, film maulertzen zaila edo pixka bat arraroa zela iruditu zitzaidan lagun sortaguztiari, baina, beste alde batetik, zerbait ezberdinen esperan geunden eta pelikula honek gure nahiak bete zituen. Filmean aurkitzen ditugun aktoreak sekulako lana egiten dutela uste dut, eta bertan ikus daitezkeen plano sekuentziak oso onak iruditu zitzaidakidan.

Orain arte musikaz irakurtzera etorri zaretenok galdera bat izango duzue buruan: Zergatik ari da film baten inguruan hizketan musikari buruz aritzen den tipo bat? Galdera horren erantzuna filmak duen ikaragarritzako soinu bandan dago. Filma ikusterakoan ez nuen sinetsi entzuten ari nintzena. Inoiz film batean entzunda ez nuen musika entzuten ari nintzen pelikula horretan. Banda osoa Antonio Sanchez musikariak idatzi du, eta ez da aurretik

entzundako bandak bezalakoa. Bere film baterako lehenengo lanean, Antoniok ikaragarritzako lana egin du, nire ustetan behintzat, eta bateriarekin inprobisatuz bete ditu filmaren 118 minutuak. Erokeria bat dirudiela ematen du 118 minututan bateriabat inprobisatzen entzutea, baina, batzuentzako jazz bateriarik onena den honek, inor alde batera utziko ez duen lana egin du. Bestalde, zaila da imajinatzea nola lor daitekeen pertsonai baten nondik norakoak bateri batekin baka-

rrik (filmaren parte handi batean) deskribatzea. Zailtasun honen aurrean Antonio Sanchezek lan oso ona egin du, eta bateriaren erritmoak eta intentsitatea aldatuz, pertsonaiak momentu ezberdinetan bizitzen dituen sentimenduak transmititzea lortu duela esango nuke. Beraz, eta bukatzeko, esan behar daukat niretzako Birdman-en soinu banda urtean entzungo den onena ez bada onenetakoa izango dela. Zer esango du perkusioa maite duen batek.

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 88%

euria: 58%

euria: 23%

euria: 18%

euria: 10%

euria: 10%

euria: 18%

Min: -5 Max: -2

Min: -4 Max: -1

Min: -4 Max: 0

Min: -2 Max: 1

Min: -7 Max: 4

Min: -2 Max: 6

Min: 0 Max: 7

temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	11.5	-0.5	226.8
Etbarri A.	10.8	-3.9	180.3
Altsasu	11	-4	173.5
Aralar	5.2	-8.3	85.8
Urbasa	-	-	-

ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
12	19	25	5

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixeguaixe

Ilbeltzeko bazkide sarituak

1.- Isabel Vazquez Sanchez
(Altsasu)

2.- Adur Ramirez de Alda Pozueta
(Altsasu)

3.- Bitoriano Gabirondo Lanz
(Iturmendi)

4.- Andra Mari Ikastola
(Etxarri Aranatz)

OTSAILEKO SARIAK:

1. Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldiakariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katxiporreta materiala.

2. 3. 4. SARIA: Gaztezulo aldiakariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katxiporreta materiala.

>> 11 galdera

Urdiaingo kintoak, Javi “Ipi” eta Antton

Urdiaingo zortzikoz

Testua: Maider Betelu Ganboa



Argazki oina: Urdiaingo kintoak, kinto gazteak eta kinto zaharrak (neskak falta dira), Javi Zelaia “Ipi” irakaslea eta Antton Zubiria, David Oroz eta Oihane Uhartetxistulariak.

1. Urdiaingo kintoak, kinto gazteak eta kinto zaharrak Urdiaingo zortzikoa entseatzeko harrapatu ditugu. Noiz dantzatzeko duzue?

Kintoak: Igandean, Santa Ageda ospakizunetan, 12:30 edo 13:00 inguruan, meza eta gero, plazan. Javier Zelaia “Ipi”-k irakasten digu zortzikoa. Aurten 5 kinto gara, 4 mutil eta neska bat, eta kinto zaharrak eta kinto berriak kontuan hartuta guztira 25 neska-mutikok ospatuko dugu festa. Zortzikoa kintoek dantzatzeko dugu, eta baita animatzen diren kinto zaharrek eta kinto gazteek ere.

2. Zenbat denbora ematen duzue zortzikoa ikasten?

Kintoak: Errege egunaren ondoren hasi ginen. Astelehenetan, ostegunetan eta ostiraletan entseatzeko dugu, 19:45ean.

3. Gainera zuzeneko musikarekin entseatzeko duzue, txistulariekin.

Antton: Aurten bai. Txistulariak prest gaude. Talde polit bat gaude Urdiainen, 15 txistulari, herri txiki bat izateko asko. Lau talde-tan aritzen gara.

4. Zer moduz moldatzen dira mutikoak zortzikoarekin?

Ipi: Ondo, ez dago gauza hobeagorik borondatea izatea baino. Nahi dutelako etortzen dira, ez dute obligaziorik. Kinto gazte, kinto eta kinto zahar izan nintzenean, nik 3 urtetan dantzatu nuen. Urteak egon dira zortzikoa ateratzeko gaizki ibili direnak. Nik zortzikoa irakasten dudanez, duela 15 urte, harrezkero mutiko guztiek ikasten dute. Eta zortzikoaz apar-

te, jota eta porrusalda ere bai. Konpromisoa hartu zuten eta denek ikasten dute. Neskek jota eta porrusalda dantzatzeko dute eta normalean aurretik badakite.

5. Kontentu etortzen zarete ikastera edo derrigortuta?

Kintoak: Guztiok ikasi nahi dugu, eta polita da gure ohitura eta kultura mantentzeko.

Ipi: Urdiain oso ongi portatzen da kintoekin, axuriaren boletoak erosten, dirua ematen... eta zortzikoarekin kintoek hori guztia eskertzen dute.

6. Zenbat zati ditu Urdiaingo zortzikoa?

Ipi: Agurrez aparte aurrekaldeko pausu motzak bi zati ditu, atzekaldeko pausuak beste bat eta aurrekaldeko pausu luzeak beste bat. Ez da zaila. Tartean halako protokolo bat dauka, detaile txiki batzuk, horiek jakin egin behar direlarik dantza polita egiteko: aurreko agurra, ardo emateak, neska sartzeak mutil tartetan eta abar.

7. Altsasuko zortzikoarekin antza dauka?

Antton: Bai. Urdiainen 3 estrofa dira, eta Altsasukoak beste puskat bat gehiago dauka. Gure azkeneko zortziko hori beste modubatera da Altsasun. Bi estrofa ezberdin ditu eta guk bezala zortzikoa beharrean beste melodia bat dute, zortziko melodia beharrean beste erritmo bat. Antzekoa. Doinua antzekoa da.

8. Igandean dantzatzeko da zortzikoa, plazan. Eta eguraldi txarra egiten badu?

Ipi: Behin arraso busti ziren bainonahiago izan zuten plazan dantzatzeko. Beste grazia bat du. Duela 3 urte frontoian egin behar izan zen, eguraldiagatik. Ikusiko dugu.

9. Zergatik hasi zinen zortzikoa irakasten Ipi?

Ipi: Niri Inazio Izagirrek erakutsi zidan zortzikoa eta beti gustatu izan zait zortzikoa dantzatzeko, San Pedrotan eta. Duela 15 urte kintoak zuzen etorritzaizkidan zortzikoa erakusteko eskatzera. Orduetik urtero etortzen zaizkit eskatzera eta nik baietz erantzuten diet; gustura egiten dut. Orain, gainera, txistua jotzen dut.

10. Nola ospatzen dituzue Santa Agedako kinto festak Urdiainen?

Kintoak: Ostiralean bazkaltzera biltzen gara eta arratsaldean axuria zozketatzeko boletoak saltzen ditugu. Jendea oso ongi portatzen da eta normalean boleto guztiak saltzen dira. Igandean, zortzikoaren ondoren zozketatzen dugu axuria. Larunbatean baserrietara joaten gara eskera. Han jota eta porrusalda dantzatzeko dugu eta gero pote batzuk hartzen ditugu Altsasun. Bazkaltzera Urdiainera etortzen gara. Gero parranda egiten dugu Urdiainen. Igandean zortzikoa dantzatzeko dugu. Ondoren, bazkal aurretik, herriko goikopartean eskean aritzen gara eta, arratsaldean, herriko beheko aldean. Gogoz gaude, egun politak izaten dira.

11. Ongi pasa dezazuela zuek eta Urdiaingo kintada guztiek. Denok: Eskerrik asko!

Ikastetxeendako matrikulazio kanpainak

irratik... iragarkiak • bannerak • eskurariak • kartelak

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275 argi@guaixe.net

Egin zure aukera lehenbailehen!

Argitalpen eta diseinu lanetan %Seko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei